

EINSTEIN ETA HEZKUNTZA

Hezkuntzaren kalitatea gora eta behera darabilgun garaiotan, komenigarria izan daiteke Albert Einsteinek horri buruz esandako batzuk hona ekartzea:

«Ez da nahikoa gizaki bati espezialitate bat irakastea. Horrek makina erabilgarri moduko batean bihur badezake ere, ez du harmoniaz garatutako nortasunaren jabe egingo. (...) Ederraren eta moralki onaren sentimendu indartsua bereganatu behar du. Bestela, bere ezagueren espezializazioarekin, ongi hezitako zakurraraen antza handiagoa izango du harmoniaz garatutako pertsonarena baino. Gizakien motibazioak, euren ilusio eta sufrimenduak ulertzen ikasi behar du, hurkoarekiko eta komunitatearekiko erlazio egokia lortzeko.

Irakasten dutenekiko harreman pertsonalaren bidez transmititzen zaizkie altxor hauek belaunaldi gazteenei, ez (oinarrian, behintzat) testuliburuaren bidez. Hori da oinarrian kultura osatzen eta gordetzen duena. (...)

Berehalako erabilgarritasunaren aitzakiaz sistema lehiakorrean eta espezializazio goiztiarrean gehiegi insistitzeak akabatu egiten du kultur bizitza ororen, ezaguera espezializatuarena barne, oinarria den izpiritua.

Hezkuntza aberats baterako funtsezkoa da baita ere gazteak pentsamendu kritiko independentea garatzea, eta garapen hori arrisku larrian jartzen du diziplinen ugaritasun gehiegizkoak. Gehiegikeria honek azakeria dakar nahitanahiez. Hezkuntzak eskainitakoak dohai baliotsu gisa eta ez eginbehar neketsu gisa hartzeko modukoa behar luke.»

Ez dakit nik hezkuntza arautzeko ardura eta agintea dutenek Einsteinen gogoeta hauek hausnartzeko paradarik hartu duten sekula. Akaso haserretu egingo ziren harekin beste aforismo hau leitzean: «Jakintza eta boterea konbinatzeko saioek oso gutxitan izan dute arrakasta eta izan dutenean, oso denbora gutxian izan dute.» Edo «Tontoen nagusitasuna gaindiezina da eta ziurtatuta dago betirako. Hala ere, euren koherentzia faltak euren despotismoarekiko ikara arintzen du.» Ez aintzat hartu; jenioen kontuak, badakizue.